

bidegileak



Joxe Artetxe (1906-1971)

Egileak:


JOXE RAMON ZUBIMENDI

MIKEL ATXAGA

Sustraiak

Joxe Artetxe Aranburu azpeitiarra zen, Gipuzkoako Urola bailaran jaioa 1906an, eta harrotasunez aitortu izan zuen beti bere azpeitiar izaera; baina esanez, gainera, azkoitiarra izan zuela izen-deiturak eman zizkion aitonaren aitona.

Elkarri aurre egiten dioten alderdi bitan puska bana izate hori, gogorra eta mingarria izanik ere, aberasgarria gerta daiteke bizitzaren eskolan. Gogortxo gertatuko zitzaion Joxe Artetxeri ere, noski, Azpeitiko xapoak eta Azkoitiko xakelak elkarri dioten ezina. Jaiotetxean ere alderdi bietako arbasoak izanak izango zituen; izan ere, Joxe Arte-



Joxe Artetxe Aranburu (1906-1971).

txeren birramona Madalenak, liberala izaki, hala esaten omen zuen bere seme karlistagatik (alegia, Joxeren aitona Inaziogatik): «Karlistak eta ijitoak behin ere ez dira akabatuko!».

Joxeren aita Roke Artetxe ere, XIX. mende bukaerako azpeitiar gehienak bezalaxe, karlista sutsua zen eta integrista zorrotza; baina Ipar Euskal Herrian pasa behar izan zuen atzerrialditik itzultzean, epeldu ez ezik, nahikoa hoztu ere egin omen zitzaizkion ideologia eta erlijiozaletasuna. Kontua da, behintzat, Azpeitiko parroko jauna kezka-larriturik ze-

bilela horregatik, eta Joxe mutikoari galdezka hasi zitzaiola ea aitak otoitzik egiten ote zuen etxean; izan ere, ez baitzen normala inor Marseillesa kantatzen hastea (eta Rokek horixe kantatzen) bere emaztearen gehiegizko beroaldi erlijiosoak orekatzeko.

Joxe Artetxeren ama hori, Maria Aranburu, integrista gogorra zen, antza: jansenista izate-rainokoa, agian, Joxek berak gerora uste izan zuenez. Emakume sendoa, aratza eta mara-tza, begieztia eta eskuzabala; baina oso zorrotza (bere buruagandik hasita) eta lehorra: Joxek ez omen zuen gogoan bere amak inoiz musurik eman zionik! Dena dela, eta Rokeren Marseillesa gorabehera, etxekoan-drea zen nagusi Azpeitiko Artetxenean ere, Euskal Herriko beste etxe askotan bezalaxe.



Artetxek egindako marrazkia: San Bernabe ermita (Apozaga).

Jaiotetxea

Artetxenea ez zen etxebizitza soila, ezta ba-serria ere; ostatua baizik: Azpeitiko ostatu nagusia. Artetxeneko egoitza hark hainbat bisitari ospetsu ere izana omen zuen: Anton Abadia jakintsu eta euskaltzale aparta eta Euskal Lore Jokoen babesle eskuzabala (Udarregi eta Pello Errota bertsolarien arteko haserre ospetsua Azpeitiko ekitaldiko saria zela-eta sortu zen), Espainiako errege Alfonso XII.aren arreba Doña Isabel, Benito Perez Galdos idazlea (Joxeren amak mezatara joanarazteko esnatua izango zuen 1899ko igande goiz batean) eta, besteak beste, Francisco de Paula Madrazo idazlea (honek 1848an egindako bidaiaren liburuan aipatzen ditu, eta goraiatzen, bai Artetxenea ostatua eta bai Joxeren arbasoak).

Ostatua, beraz, eta etxe dotorea, Artetxenea: hango jangela oparoak, hango logela politik, hango XIX. mende bukaerako frantses moda berriak, hango Gustav Doré-ren irudiak eta hango apainduriak, noski! Baina gelatako atea beti itxita izaki, eta txukun-txukun eta isil-isilik ibili behar etxean, bezeroei zor zaien begirunez. Beraz, horretan ere, alderdi bieta-ko tiradizoa; izan ere, ostatu dotorea baino etxe alaia beharrago izaten baitu haurrak.

Haurtzaroa

Azpeitiko kale-etxe dotore horretantxe jaio zen, 1906ko martxoaren 12an, gure Joxe Artetxe, beste zortzi senideko familian, Delfina, Inazio, Juan, Sebastian, Benantxio, Maria, Kontxita eta Pilar anai-arreben artean.

Garai hartako Azpeitian bazen industriarik ere, baina nekazaritza nagusi; bazen argi-indarririk ere kale eta etxe askotan, baina elektrika hori teknologia berria zen, artean; bazen udal musika-banda bikaina ere, baina txistularien ttunttunak eragiten zion dantzara jende-ari; bazen eguneroko zalburdia ere (Joxeren jaiotetxetik abiatzen zen, hain zuzen ere) Zumarragako nahiz Elgoibarko tren-geltoki-etara joan-etorria egiteko; baina aireplanorik ez zuen ikusi Artetxek, harik eta zazpi urte bete zituen arte.

Hegazkinaren pasadizo hori ez da axalekoa, eta merezi du xehetasunez aipatzea; izan ere, ahaztu ezin halako irakaspena eman baitzion Joxe Artetxeri mutikotan. Kontua da gizon hegalaria heldu zela Azpeitira 1913an, gurdi batean zekarrelarik bere hegazkina (puskak askatuta ekarri ere eta ongi estali-ezkutatuta). Ostatz, Artetxenera bildu zen eta bertan lotu hegazkinaren puska guztiak, sekretupean bezalaxe, harik eta aireplanoa osatu arte. Gero, zer egitasmo zuen adierazteko aldarria jo, ikusle mordoa bildu, motorea martxan

jarri, burrundaka aireratu eta Azpeitia gainean biraka ibili zen burdinazko txoria, zirko zabalean bezalaxe, herriko jende guzti-guztia begira zeukala, denak aho zabalik, mirari hura sinestu ezinik. Joxe Artetxe ere, jakina!, txundituta geratu zen; baina, aldez aurretik ikusiak zitue- nez tramankulu haren puskak zein bere alde- tik, sekretuaren jakitun bezala zegoen, eta horri esker ikasi omen zuen gauzen itxura hu- tsarekin ez liluratzen, azala eta mamia bereiz- ten. Gaztetxo izanik ikasi zuen, beraz, gertaka- rien barruko zoko-moko ezkutuen berri.

Izaeraz-edo, badirudi mutiko bakarti eta ameslaria izan zela Joxe Artetxe, Azpeitiko kaleko gainerako umee-kin jolasean asko ibili gabea; baina, haiek ez bezala, irakurtzale amo-rratua.



Artetxenea ostatu famatua eta Joxeren sortetxea, 1910eko argazkian.

Eskola

Frantsesa zen gizon hegalaria, baina hura agertu aurretik ere Joxe Artetxek bazekien zertxobait frantsesez; izan ere, moja frantsesak izan zituen lehen irakasleak: hain zuzen ere, Frantziatik ihes Azpeitira etorri eta, gaztelaniaz ez jakin arren, bertan eskolak ematen zituzten Notre Dame-ko mojak.

XX. mende hasieran ere euskaldun peto-petoa zen Azpeitiko herria, eta Joxe Artetxe bera ere bai, jakina! Gerora oso ongi ikasi zuen bai gaztelaniaz eta bai frantsesez, eta hizkuntza aniztasun horrek (irakurtzaletasu-

narekin batuta) oparo egin zituen Joxe Artetxeren oinarrizko alderdi bi: batetik, atzerriak eta kanpoko kulturak bereganatzeko zabaltasuna; bestetik, Euskal Herria eta euskara gehiago eta ohartukiago maitatzeko ezaguera.

Zortzi urte bete zituenean, Notre Dame-ko mojen eskolatik atera eta Azpeitiko bertako Maristen ikastetxera aldatu zuten Joxe Artetxe, eta han ezagutu zuen, besteak beste, ikaskide Inazio Eizmendi, *Basarri* bertsolaria, orduz geroztik adiskide mina, bizi izan zeino. Bost ikasturte egin zituen Artetxek kolegio



Joxe Artetxe Azpeitiko Maristen eskolan bere eskolagunekin, 1916an.

hartan, harik eta hamahiru urteko mutila zelarik, batxilergo hirugarren maila gainditu orduko, eskolak utzi eta lanean hasi behar izan zuen arte.

Lanean hasi zen, bai; baina ez ikasle txarra zelako, ezta hurrik eman ere! Batxilergo hiru mailak urte bakarrean gaindituak zituen arren, halabeharrak eragin zion lanean hasitera. Izan ere, Artetxenean ohiz kontrakoa gertatu zen: seme zaharrenak unibertsitatera joan ahal izan zuen eta Medikuntza ikasketak burutu; baina gazteenak (Joxek), aldiz, eskolak utzi eta etxera soldata ekartzen hasi behar izan zuen. Joxe Artetxeren gurasoei, agi danean, diru-arazo larriren bat egokitu zitzairen, oso larria: beren etxe hura, Artetxenea ostatu ederra, saldu eta hustu behar izaterainokoa. Orduantxe bukatu ziren mutikoaren eskolak, eta handik aurrera bere ahalegina izan zuen irakasle nagusi. Hortaz, autodidakta legez garatu zen Joxe Artetxe: gogoia erne, burua argi, saiatuaren saiaturik eta irakurriaren irakurritz aurrera egin zuen gizona.



Maritxu eta Joxe ezkonberritan.

Lanera oso gazterik

Hamahiru urterekin lanean hasi zenetik, bizi izan zen bitarte guztian besteren kontura lanean jardun beharra izan zuen Joxe Artetxek, biziko bazen: gero eta lan gehiago eginez, gainera. Ez zen dirutu, beraz, nahiz eta dirutzeko aukera ederrik izan omen zuen kazetari ezagun bihurtu zen garaian; baina horretarako bere burua saldu behar, eta horixe nahi ez, inola ere, Joxe Artetxek:

Kazetari izateak bi alderdi ditu: albistea eta egia; egia gabe ez baitago kazetaririk. Gizonak, gizaseme nahiz emakume, egia jakin nahi du. Gizonari egia zor zaio. Egia etsai asko ditu gaur egun.

Zein dira, bada, egiaren etsaiak? Gezurrezko irudipenak, isil-ezkutaketa eta estalketa, azpikeria, gezurra, beldurtarazi nahia, zitalkeria, hitzaldaketa, iraina, bidegabekeria, gezur-hitz sinespena, harrigarrikeria, grina, eztabaida, funts gabekia edo fundamenturik eza, askatasunik eza azkenik. Ez da txantxetako zerrenda.

Kazetariaren lanbidea munduko zailenetakoa dela esango genuke; zailena ez bada, behintzat.

Bulegari gisa hasi zen lanean, *Ferrocarriles del Urola* enpresan. Gero, hamalau urte zituela, Banco Vasco delakoaren Azpeitiko bulegoan jardun zuen. 1920an, banketxe horrek porrot egin zuenean, Donostiara joan behar izan


zuen bizitzera Joxe Artetxek, hiriburuko *Banco Guipuzcoano* entzutetsuan eman baitzioten lanpostua.

Donostian, Elena Gametxoren ostatuan bizi izan zen, euskaltzale artean: batetik, etxekoandre «Doña Elena», Kortezubiko bizkaitarra, ikastolako andereño ohia zen; bestetik, ostatu berean bizi zen Jesus Karrera, *Argia* aldizkariaren zuzendaria, apaiza eta gizon sakon-ikasia; gainera, bazen etxe hartan

euskal liburu ugari eta euskaltzale askoren bisita sarri, Gregorio Muxika bertan bizi izan zenez geroztik. Horrek guztiak eta kalean egin zuen lagunarteak (Uranga margolaria, Dunixi, Azkue idazlea...) behin betiko eragin zion Joxe Artetxeri. Mutikoak hamabost urte besterik ez zituen, artean, Norbert Tauer diplomatikari eta euskaltzale txekiarrarekin eskutitz bidezko harremanak hasi zituenean (*Argia* izanik bitarteko).



Elena Gametxoren etxekoekin.



Basarrik idatzi zizkion gutunetako bat.

Euskaltzale eta abertzale

Oso gazterik euskaltzaletu eta abertzaletu zen Joxe Artetxe. Hain zuzen ere, Mutrikun, bere anaia Inazio medikuaren etxean igaro zuen udan. Idazlea eta hizlaria izan zen anaia zaharrago hori ere. Orduko egunkarietan idatzi ohi zuen erdaraz: *Euzkadi*, *El Día*, *El Pueblo Vasco* eta abarretan. Euskaraz, berriz, Argia astekarian. Euskarazko hitzaldiak Euskal Esnalea aldizkarian argitaratu zitzaizkion. Medikuntza gaiak erabili ohi zituen: «Gure gaitzak», «Sendakintza gizalduyeta zear», haurrak nola zaindu eta abar.

Karlista familiako Joxe, ordea, beste Inazio batek abertzaletu zuen: hain zuzen ere, anaia medikuaren beheko solairuan bizi zen Inazio Iriondo *Arno Mendi* poetak. Orduz geroztik, Joxe Artetxe gogotsu eta irmo lotu zitzaion Sabino Aranaren goiburuari: «Jaungoikoa eta

Lege Zarrak» eta «Euskaldun, fededun». Bi helburu horien alde, kementsu hitz egin, trebeki idatzi eta gogotsu jokatu zuen Artetxek. Hala, abertzaletasun sutsu hori ikusirik, EAJ-PNV-ko kide ez ezik, Gipuzku Buru Batzako buruzagi eta idazkari ere berehalaxe aukeratu zuten.

Abertzaletasunaz gainera, Artetxek benetan bizi zituen demokrazia, askatasuna, giza eskubideak, gizalegea, kristautasuna, euskara, euskal kultura, gizarteko arazoak (AVASC, JOC, ELA...) eta abar. Horiexek ditu bere idazlan ugarietan ere hizpide, eta horregatixe jardun zuen nazionalismo inperialista-erasokorren kontra, gogotik salatuz Hitler, Lenin, Mussolini, Maurrás eta abar. Nazionalismo eraikitzailea maite zuen Artetxek, abertzaletasun demokratikoa, baketsua.



Joxe Artetxe, gaztetan.



Joxe Artetxe eta emazte Maritxu.

Baina Artetxe gazteak gerrarik nahi izan ez arren, ustekabea, gerrak bete-betean harrrapatu zuen. Egoeraren gorria ikusirik, Ipar Euskal Herrira ihes egiteko bidea eskaini zion Eusko Alderdi Jeltzaleak; baina bigarrenaren haurdunaldi betean zeukan emazte Maritxuk eraduki zuen Artetxe: «Ezin joan gintezke, Joxe, ni egoera honetan nagoela eta sosik gabe». Nahas-mahas hartan, 1936ko abuztuaren 9an, Azpeitira eraman zuen familia, emaztearen etxera. Aldez aurretik, ordea, Jesus Intxausti *Uzturre* zenak jakinaren gainean jarria zuen Artetxe: «Hik nahi ez baduk

ere, Joxe, militar horiek gerra egitera behartuko haute».

Esan eta izan. Atxilotu egin zuten eta beste irtenbiderik gabeko aukera gogorra ezarri zioten: bertan fusilatua izan ala «boluntario» joan gerrara. Beste euskaldun asko bezalaxe, gerra egitera behartu zuten Artetxe ere, abertzaleen aurka, bere alderdikideen eta demokraten kontra. Jokabide hori salduke-riatzat jo zionik ere izan zuen, nahiz eta Artetxek sekula tirorik egin ez gerran ibili zen urteetan: ezta tiro bat bera ere ez omen zuen egin, gogorki mehatxatu zuten arren.



Joxe Artetxe, hizlari.

Orduz geroztik, gerrak erdibitutako gizona izan zen Artetxe bizitza osoan. Eta bi aldeetako zauriak eta haserreak goxatzen saiatu zen, zubiak eta bakebideak eginez: horren lekuko da *El abrazo de los muertos* liburu bikaina. Horregatik, gaur egun ere, oraindik ere, batek baino gehiagok egozten dio Artetxeri bakezko zubigintza hori, esanez pare-parean jartzen zituela irabazleak eta galtzaileak, erasotzaileak eta erasotuak, hiltzaileak eta hildakoak. Baina elkarren kontrako bi lubakitan etsaiturik dagoen herrian beharrezkoak izaten dira zubigileak. Joxe Artetxek, oso

esker gaiztoa jaso arren, bakezko zubigintza eta bitartekotza paregabea eta emankorra egin zuen. Halakoxea zen gizonez: bihotzez oparoa eta buruz jantzia, intelektual kristau argia eta euskaldun garbia; nahiz eta gorrotozko ideologiaz itsututako zenbaitek besterik adierazi.

Geure arteko zarata eta iskanbila tristea. Beti horrela behar izateak ere baditu bereak! Baina utz dezadan alde batera arazo penagarri hori. Esango nuke euskaldunon beti-betiko ezbeharrak ez daukala erremediorik.



Urkiolako Sabigainetik gerra garaian Artetxek egindako marrazkia.

Kazetaritzako teknikak

Joxe Artetxe aitzindari dugu, besteak beste, kazetari-estiloaren korapiloak ezagutzen eta askatzen. Kazetariarentzat funtsezkoa da *lead-estiloaz* jabetzea: alegia, albistearen mamia atariko lerrokadan laburki adieraztea eta, ondoren, gertaeraren gainontzeko jakingarririk garrantzitsuenak «iraulitako piramidean» deritzon egituraren arabera antolaturik kontatzea; horrela eginez gero, kontakizuna arina baita, eta albistea, ulergarria.

Joxe Artetxek garbi asko utzi zuen kontu hori duela denbora asko: 1969an. Eta data horrek berebiziko garrantzia du, Txema Ramirez de La Piscina ira-

kasleak dioenez; izan ere, 1969an, artean ez baitzegoen ezer argitaraturik kontu horietaz: Espainian ez, behintzat.

Esandakoaren lekuko dira Joxe Artetxeren ondorengo idazlan-zatiok (garai hartako



Artetxeren liburuen marka, Antonio Valverdek egina.

Zeruko Argia aldizkaritik hartu ditugu eta, hemen agertzeko, ortografia batura egokitu):

Egunkari batek, astekari batek, bere idazteknika berezia dauka: periodiko bat, asteroko bat, ez da liburu bat. Liburua hartu, ireki, irakurri eta azkenean, nekatu edo aspertu garenean, utzi egiten dugu, beste batean jarraitzeko asmoz. Periodikoari, berriz, azkartxo batean ematen diogu pasada. Aldizkariko

artikulu bat, luze iritzita, beste baterako uzten baldin badugu, ziur egon artikulu hori ez dugula behin ere irakurriko.

Artikuluak aurren-aurreneko lerroetan behar du bere gakoa. Egunkari eta astekarietako artikuluek teknika berezia dute, liburuak bere aparteko teknika daukan bezalaxe. Kazetaritzak hizkera berezia behar du izan, eta hori gaur egunean ez dakienak ez du balio komunikabideetan idazteko.



Artetxe bere idazgelan, irakurri eta idatzi.

Kazetarien gizalegea

Artetxek ederki zehazten ditu kazetaritzaren heldulekuak. «Kazetariak gaurkotasunezko gaiak ere behar ditu. Horrez gainera, benetako gogoz zerbait esan nahia. Eta gogo horrekin batean, esaten asmatzen jakitea. Esaten asmatze horrek ere baditu bereak!». Baina, Joxeren ustez, teknika bakarrik ez da aski. Gizalegea ere behar da.

Izan ere, kazetaritzak badu bere gizalegea. Norbere ikuspegitik, noski, baina ahal duen egitasunik handienaz azaldu behar ditu albisteak, gertaerak, besteren adierazpenak eta abar. Artetxek ezagutu zuen Errepublika garaiko kazetaritza. Eta pairatu zuen diktadura garaiko zentsura. Gezurra eta iraina



Etxeko teilatuan, Donostian.

erraz gailentzen diren une honetan ere esango luke zerbait. Dena den, hona Joxe Artetxeren iritzia:

Batzuetan, gehienetan, kazetariak egia aldarrikatzeko obligazioa baldin badauka ere, beste batzuetan isiltzekoa eduki dezake: gertatu dena edota gertatzen ari dena isiltasunaren maindirepean estali beharra. Albiste guztiak ezin daitezke aireratu, aireratzekoak inondik ez direlako.

Beste askotan, berriz, indarrez zeharo baztertuta dago kazetaria, zapalduta. Jakina da nondik jasan behar duen zapalketa-mota hori. Zer egin, guztion une beltzetan? Pentsaezinezko tokietatik agertzen baitira egia-
ren etsaiak. Nondik bideak eragin, hori gertatzen denean? Nondik jo? Beharrez agindutako albisteak hartzen dituenen, zer egin?

Zuzentasunarengan itxaropen oso-oso behar du kazetariak. Baita gizonen arteko senidetasun eta adiskidetasunean uste bete-betea ere. Gizadi osoaren batasunean ere bai. Kazetariaren hitzak zuzenbidezkoa behar du izan: hitz sendo eta osasungarria, gizon-emakumeen bihotza bizkortzeko modukoa.

Ez da lantegi erraza baldintza horiek denak elkarraraztea. Ez, ezta gutxiagorik ere. Zenbait tokitan, batez ere.

Hizkuntza ulergarria

Euzkadi eta *El Día* egunkarietan hasi zen idazten Joxe Artetxe (erdaraz, euskaraz baino gehiago) eta *BAI*, *Yakintza*, *Argia*, iparraldeko *Aintzina* eta *Elgar* aldizkarietan. Erdaraz idazteagatik kontuak eskatu zizkionik ere izan zuen; besteak beste, Nemesio Etxaniz azkoi-tiarrak: «Jauregik zuzen dioenez, erdaraz egin beharra ere badugu: baina beti edo ia beti erdaraz idatzi beharrik ez dugu. Hasi, bada, Jauregi, Artetxe, Aitzol eta beste idazle izen haunditxoak duzuenok euskaraz sarri eskribatzen» (*El Día*, 1934-III-13).

Irakurle askorengana iritsi nahiak, bizi beharrak eta euskararen kontrako debekuek eraman zuten, noski, erdaraz idaztera. Baina euskaraz idatzi zuena ere ez da gutxiestekoa: 70 artikulua idatzi zituen gerra aurreko *Argia* aste-karian (Europar gailentzen ari zen nazismoa-rekin eta faxismoarekin oso kezkatu-rik ager-tu zen aldi hartan). Gerra ostean, berriz, *Zeruko Argia* astekarian idatzi zuen euskaraz, ia astero: 135 artikulua argitaratu zituen 1970 bitartean. Bestetik, *Aranzazu* aldizkarian, 16 idazlan, 1970-71 bitartean. Gainera, beste bost Donostiako *Hoja del lunes* astelehenero-koan. Gogoangarria da bere bizitzako azken bi urteetan euskaraz baizik ez zuela idatzi jakitea. Eta beti gai interesgarriak eta jakingarriak azaltzeko: «Antxieta, Orixe, Domenjon, Liburutegiak, Kontzilioa, Gazteak, Unamuno eta euskara, Beobide, Elias Salaberria, Dirua



Hitzaldi asko egin zituen Joxe Artetxek.

eta kultura, Villasante, Nafarroa, Herriak eta kultura, Gwenëlle, Gazteak eta historia» eta abar.



Aita-semeak Alkizan: Joxe eta Agustin.

Aitortu ere, halaxe aitortu zion Nemesio Etxanizek Artetxeri (hau hil ondoko artikuluan): «Gizon batez ere, zure Euskalerriarrekiko maitasunez. Azkenaldi honetako euskarazko zure lanek erakutsi dute gure herriaren mintzaira zahar hau zenbateraino sartua eta errotua zendukan zure bihotzean» (Zeruko Argia, 1971-X-3).

Euskara ez zuen, agian, gaztelania bezain lortua; bai, ordea, barrutik irteten zitzaiona, atsegina eta ulergarria: herriarena bezalako-xea. Irakurleari trabak jartzearen aurka zegoen, eta ahalik euskararik argiena, errazena eta herrikoiena erabiltzen saiatu zen Artetxe,

besteak ere jokabide horretara lerratu nahian:

Neu aurrena naizela, ez dezagula jendea aspertu. Arintasuna eta sakontasuna uztar daitezke; eta, nola ez!, baita gustagarritasuna ere. Ahal den euskararik errazena [argiena] erabil dezagun. Ez dezagula erabili inork ulertu ezinezko hizkuntza.



Ensayo. 20 Sep. 1952

Artetxe, Basarri, Uztapide eta beste.

Bertsolariengandik ikasi beharra dugu. Bertsolariak nonahitik bereganatzen du behar duen hitza, eta badaki jendeak ulertu egingo diola hitz hori; jendearentzat kantatzen baitu, ez jakintsuentzat.

Nik esango nuke zenbait euskal idazle ahalegindu egiten dela langa eta hesi gehiegi jartzten irakurlearen aurrean. Eta hitzak argi behar du. Zer da hitza? Zeinentzakoa da idazleak darabilen hitza?

Gure arteko askotxori iruditzen zaio idaztea gramatikaz bakarrik jardutea dela: gramatika hutsa erabiltzea. Baina idazlanek gizonari eskainiak behar dute izan, gizon-emakumeen neurrira eginak oso-osoan.

Bai. Langa eta hesi gehiegitxo jartzten ahalegintzen gara. Idaztean, ahal dugun errazena [argiena] behar genuke beti. Eragozpen guztiak alde batera utziz, herria eta herriaren hizkuntza behar genituzke beti-beti gogoan.

Jendeari ahal dudan argien hitz egiteko naiz idazle. Langarik ipini gabe. Hesirik jarri gabe. Aldaparik ez; baizik ordeka, bide garbian. Euskarazko idazlerik arloteena neu naiz; baina, neure arlotetasunean, jendearen oso parean jarri nahi nuke. Irakurleek ulertzen ez badidate, alfer-alferrik ari naiz.




Asko gustatzen zitzaion oinez ibiltzea.

Gerra ondo latza


Gerra amaitu ondoren, familiako bizitzarra moldatu behar izan zuen Joxe Artetxek. Izan ere, emazte Maritxu Gorostegirekin izan zituen Mirentxu, Iñaki, Itziar, Agustin, Kontxita, Arantza, Joxemari eta Jabier seme-alabak mantentzeko eta eskolatzeko bazen eskuak bete lan, gerra ondoko gose-urte haietan.

Donostiako *Banco Guipuzcoano*-ko soldata eskas antzekoa izaki, nonbait, eta leku merkexeagora joan ziren bizitzera: Zarautza. Emazteak, berriz, haurren soinekoak josteari ekin zion; esku oneko jostuna baitzen.

Zarautzen bizi behar hori ez zitzaion oso eroso gertatu Joxeri; baina trene-



Beobide' tar Julio eskultoreak *Mi Guipuzcoa* liburuagatik zorionak emanez euskaraz idatzitako gutuna.



Etxaniz Getariako sendagilearentzat Lope de Aguirre eta Francisco de Jabier liburuk eskatuz Basarrik idatziriko gutuna.



Artetxe-Gorostegiren seme-alabak.

ko joan-etorria berebiziko iturri bilakatu ziztaion idazteko. Eguneroko ibili horretan entzuten eta ikusten zituenak kontatzen dizkigu *Mi viaje diario* liburuan: gerra ondoko gabeziak, aterkia zabaltzera behartzen zuten treneko itusurak, trenbideko etengabeko matxurak eta trena gelditu beharrak, Orioko geltoki ondoko Gabon eskeko haurrak, Añorgako festak, trenean ezagutu zituen gizon-emakumeak eta abar.

Ondoren, egundoko emana agertu zuen euskaldun sonatuak goraiatzeko: San Inazio, Elkano, Urdaneta, Legazpi, Xabier, Lope de Aguirre, Saint-Cyran, Labegerie kardinala, Areizaga apaiza. Baita Gipuzkoako historia, pertsonaiak eta paisaia ederresteko ere:

Caminando, Mi Guipuzcoa, Portar bien...!, Camino y horizontes, Discusión en Bidartea, De Berceo a Carlos Santamaría...

Ugari ditu Artetxek autobiografikoak ere, gerrako eta gerra ondoko oroitzapenak, bake-ametsak, emazte Maritxurekiko esker onezkoak eta beste: *Mi viaje diario, La paz de mi lámpara, Siluetas y recuerdos, El gran asombro, Canto a Marichu, El abrazo de los muertos, Un vasco en la postguerra...*

Horiez gainera, *Cuatro relatos* eta *Vida de Jesús* liburuak ere idatzi zituen, eta ezin konta ahala artikulua aldizkari eta egunkarietan: bi mila inguru, alajaina! Bestek idatzitako hamaikatxo libururi hitzaurre ederrik ere egin zion.



Julio Beobide eskultoreak egindako Artetxeren burua.

Euskal kulturgintza

Zarautzen bizi zelarik, han egin zituen lagun Julio Beobide eskultorea, Getariako udal-idazkari zen Aginaga eta Patxi Unzurrunzaga, *Itxaropena* argitaletzeko nagusia. Ezaupiderik ere egin zuen Zarautzen udaldia igarotzen zuen Pedro Rocamora frankistarekin, Espainiako garai hartako gobernuko «Prensa y Propaganda» alorreko zuzendari nagusiarekin. Ezaupide hori baliatuz, Artetxek eta Unzurrunzagak bisitatxo bat egin zioten Rocamorari 1947ko udan, eta horrelaxe lortu



Olaberrian, 1955-05-30, Lazkaoko beneditarretan ostaturik zegoen Orixerengana joanak seguruenik. Eserita, eskuinetik ezkerrera: Juan Garmendia *Zeleta*, Joxe Artetxe, Orixe, Nemesio Etxaniz apaiza, Andres Bereziartua(?), Klaudio Sagartzazu *Satarka* eta Antonio Valverde *Ayalde*; atzean, Koldo Mitxelena eta beste.

zuten inork uste ez zuena: alegia, Orixeren *Euskaldunak*, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazu* poema eta Jon Etxaideren *Alostorrea* eleberrria argitaratzeko baimena, euskaltzaleen pozerako.

Ez zen abertzale guztien gustoko bisita izan, eta traidoretzat salatuak izan ziren Artetxe eta Unzurrunzaga. Baina Jon Etxaidek biziro eskertu zuen mesede hura: «Artetxe jaunari zor diogu, beraz, euskal liburuen pizkundea. Berak ireki zuen zirrikitia, berak urratu zigun bretxa, poliki-poliki ate zabal eta eroso bihurtzeraino» (*Zeruko Argia*, 1971-X-10).

Gerra ostean, Franco diktadorearen aginduz, debekaturik zeuden, sindikatu eta alderdi politikoez gainera, Eusko Ikaskuntza, ikastolak, euskal elkarteak, euskarazko liburuak, aldizkariak eta abar. Euskaltzaindiak eta Euskal



Artetxe, Ixaaka Lopez Mendizabal, Bello Portu, Ixaakaren seme Xabier eta beste.

Herriko Adiskideen Elkartek ez zuten debekurik jasan, bizitzeko eta lan egiteko aukera handirik gabe geratu baziren ere. Hori zela eta, Adiskideen Elkartea berpiztu nahian, Gipuzkoako Diputazioko Liburutegian hasi ziren biltzen Mariano Zirikiain-Gaiztarro, Fausto Arozena, Joxe Artetxe eta bakar batzuk, 1940. urtean-edo. Laster, 1942an, egin zen Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen lehen bilera ere Azkoitian, Urkixo gaixo zego elako, Fernando del Valle Lersundi buru zela.

Joxe Artetxe 1947an egin zen Adiskideen Elkarteko kide, bere familiarekin Donostiara itzuli baino lehentxeago. Urte horretan bertan ekin zitzaien Donostian «Conversaciones Católicas Internacionales» izeneko jardunaldiak ere, Karlos Santamariaren gidaritzapean. Santamariarekin harreman estuak zituen Artetxek, eta honen gain joan ohi zen prentsa-bidezko zabalkundea.

Kezka nabarmena zuen Artetxek gazteekiko, eta gaztediaren hezkuntzaz eta norabideaz



Bere idazgelan, lanean, 1950. urte aldera.

zuen ardura hori artikulu askotan agertu zuen, gupidarik gabe salatuz bere ustez bide okerretik abiatzen zirenak: batez ere, bortizkeriara eta marxismora lerratutako gazteekin izan zuen ikamikarik. Hala ere, aitorpen hau egin zion Luis Haranburu-Altunak: «Euskal kulturaren alorra basamortu zenean, Artetxek, bere bakardadean, astiro eta iraunkor-ki euskal aitzurra jaso zuen behin eta berriz. Berak landutako lurrari itxaropena zerion. Eta lur desegin horretan, euskaldun askok, euskal hitza aurkitu dugu» (*Zeruko Argia*, 1971-X-10).

Zeruko Argia-k berak, berriz, honako goraipua hau eskaini zion, 1971ko urriaren 3ko editorialean: «Egun edo bihar, Artetxeren lanak biltzen direnean, ikusiko du jendeak zenbat zor dion euskal letren zerbitzari haundi honi. Ta jendea harrituko du, ez lanaren haundiak bakarrik. Harrituko du ere lanaren ederrak».



Zaldibian Iztuetaren omenez: ezkerrean, Aingeru Irigarai euskaltzaina eta Xabier Aranburu kazetaria.

Foru aldundiko liburutegian

1948an Donostiara itzuli zen Artetxe bere familiarekin. Zarauzko kalean jolasean ohi-tuak zeuden seme-alabek izan zuten mirarik, jakina; Donostian etxezuloan sartuta egon behar izaten baitzuten. Baina Joxek bere gogoko lana aurkitu zuen; izan ere, Agustin Brunet zeritzon Gipuzkoako Diputazioko Presidenteak hango artxibari eta liburuzain izendatu baitzuen. Artetxek, beraz, eskueran izan zuen, orduz geroztik, bere idazlanetarako eta bere jakintza-maila hobetzeko iturri emankorra. Bazekien, ordea, lan hura ez zela bere jakinmina asetzeko bakarrik; baizik eta aholku eta argibide eske inguratzen zitzaizkionei laguntzeko ere. Horregatik, unibertsi-taterik ez zen garai haietan Artetxe maisu-aren bila joan ohi ziren jakintzan aurrera egin nahi zuten ikasleak eta ikerketaren bat bide-ratu edota burutu nahi zuten ikertzaileak.



Artetxe bere liburutegiko mahainguru batean.

Askok aitortu izan diote Artetxeri zor hori. Eta aitorpen horien lekuko dira Nemesio Etxanizen hitzok: «Egin duzu, Joxe, zure mun-du honetakoa. Zure lagunartea eta zure izena gure gizaldikoentzat aterpe paketsu bat zen. Zerbait jakin nahirik-edo, berri okerren bat genduenean-edo, liburu baten nahiz antzina-teko gertaera baten bila-edo genbiltzanean, bageneukan nora joana. (...) Zuk, beti ere, argi-tasunen bat sortuko zenuen gure zalantzak argitzeko. (...) Hamaika aldiz igo izan gara



Artetxe arte aretoan, artistez eta lagunez inguratua.

Diputazioko zure lan-lekura, gure kezkak eta nahigabeak zerbait arintzera».

Era askotako jendea hurbiltzen zitzaion Joxe Artetxeri. Idazle izan nahikorik ere bai:

Beraz, idazle izan nahi duzu? Bokazioa behar, horretarako. Eta ez, gainera, nolanahikoa: barren-barreneraino itsatsia. Bokazio argia, batere dudarik gabekoa.

Bide luzea, oso, idazlearena: bizi zaren arte, azken ordura arterainokoa. Bide latza. Bide hori bakar-bakarrik beharko duzu ibili, zeure kontzientzia lagun duzula.

Atzerrian bizi zen euskaltzale batek baino gehiagok ere, eskuera beste modurik ez zuelako, eskatu ohi zion datu bat baino gehiago Artetxeri. Hori zela eta, agi danean, Justo Garatek noiz idatziko zion beldurrez egon ohi zen Artetxe, sekulako xehetasun, argibide eta datu pila eskatzen zizkiolako aldioro.

Joxe Artetxeren hileta-elizkizuneko hitzaldian «argi maitagarri bat itzaldtu da gure artean» aitortu izan zuen, arrazoi osoz, haren ahaide eta adiskide Inazio Telletxea Idigoras historia-lariak.

Hutsune izugarria

Joxe Artetxeren ustekabeko heriotzak samin ikaragarria eta hutsune izugarria eragin zion askotxori. Hil zen egun berean, goizean, besteak beste, Pelay Orozco, Almorza, Banús eta Jorge Oteiza izanak zituen bisitari Diputazioko liburutegian. Arratsaldean, berriz, Telletxea Idigorasekin mintzatua zen luzaro. Bakarrik geratu zenean, idazteari ekin zion Joxek. Handik ordubete baino lehen hilik aurkitu zuen bere alabak, idazteko luma eskuan zuela. 1971ko irailaren 23a zen.

Berehalaxe barreiatu zen berri samina: «Artetxe hil da». Nemesio Etxaniz eta lagunak, «odola galduta bezala» gelditu omen ziren. Iñaki Eizmendi *Basarri* Azpeitiko eskolalagunak «akabo nere pozak eta alaitasunak» egin zuen intziri. Xabier Aranburu kazetariak «Nire lanbidean ez zait behin ere gertatu horrenbeste kosta zaidan berririk ematea» aitortu zuen.



Joxe Artetxe eta Pelay Orozco.

Hunkigarriak izan ziren Donostiako San Inazio parrokian egin zitzaizkion hiletak. Groseko eliza txiki gertatu zen hainbeste jenderentzat; baita aldea ere, hainbeste apaizentzat. Telletxea Idigorasen euskarazko eta erdarazko hitzek ere zirrara beroa sortu zuten: «Bere agurrik argitsuena, bere betiko abotsik ederrera, bere bizia izan da: euskaldun jatorra, senar eta aita maitagarria, eskritore bizia, su-tsua, adiskide ona. Nahiz eta deadarka, garra-sika ari, bihotz hutsa zen».

Egun haietako egunkari eta aldizkarietan ere aipamen handiak egin zituzten Artetxek utzitako ondareaz eta hutsuneaz. Xabier Aran-



Artetxe eta Telletxea Idigoras, aitasantu Joan XXIII.arekin.

buruk, Berruezok, Erostarbek, Telletxeak, Peña Santiagok, Basarrik, Aizarnak, Anizeto Zugastik, Etxanizek, Baionako Elizbarrutiko Bikario Nagusi Narbaitzek, Erentxunek, Pelayk, Mendiolak, Pilar de Cuadrak, Azaolak, Xalbador Garmendiak, Haranburu-Altunak eta abarrek guztiz goraipatu zuten Joxe Artetxe, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, 70 artikulutan. *Canto a Joxe* liburuan berrargitaratu zituen Telletxeak, 1972an.

Artetxeren lana, izaera sutsua, zintzotasuna, fedea, egia, bake-, askatasun- eta zuzen-zaletasuna, Euskal Herriarekiko, euskaldun zernahirekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua eta maitasuna goraipatu zituzten, aho batez. Batek baino gehiagok kontatu zituen elkarren artean izandako gorabeherak ere. Anizeto Zugasti apaiz idazleak, esaterako, ondo gogoan zuen Artetxek, hil baino ordu batzuk lehenago, eman zion

aholkua: «Ez atzera begiratu! Aurrera, beti aurrera! Ez alde batera ta bestera, beti aurrera!».

Hamar bertso eskaini zizkion Manuel Matxainek, 1971ko urriaren 3ko *Zeruko Argia* astekarian, «garbi ikusten da pakezalea ziñala zure lanetan, pakea beti goraltzen zendun zure liburu danetan» aitortu aurretik, bertso honetan bildu zituen Artetxeren kezkak eta euskaldunen arteko istiluak:

Joxe Artetxe idazle ona
gure artetik jua da,
bere bihotzak aspaldi hontan
asko sufritzen zua da.
Hamaika aldiz entzuna nago,
lagun haundia nua da:
zergatik gabiltz beti burrukan
danok anaiak izan da?



Heriotzarekin urtemugan Donostiako Kutxak Azpeitian, 1972an, Artetxeren argazki eta liburuekin ezarritako erakusketa.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Kutxa fototeka. Gipuzkoa-Donostia Kutxa.*
- *Antonio Villanueva Edo. Jose de Arteche Aramburu. Vida y obra de un vasco universal.*
- *Auñamendi argitaletxea. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1767-7
84-457-1769-3

L.G.: VI-514/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística